

# XIX MENDEKO BANDOLERISMOAZ: MANUEL ANTONIO MADARIAGA “PATAKON” GAIZKILE ONAREN ADIERAZPENA

Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga  
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

## SARRERA

Julio Caro Baroja jaunaren omenez ikertu dut espreski ondoren emango dudana, berak gehien erabili eta landu dituen zientzien metodoak kontutan izanik: Etnografia eta historia, Europako etnografia ez bait dago ongi burutzetik, historiaren ezagupide zehatzik gabe, sarritan irmoki eta maisuki adierazten saiatu den bezalaxe.

Gaur egunean Bizkargi mendi inguruko herrietan oraindik orain ahozko tradizioan pertsonai baten istorioak kontatzen dira ipuin gisa, duela ez asko inguru haietan ibiltzen zena alegia. Patakon ezizenez ezagutua zen eta da. Gure lan hau burutzeko, bada, iturri bitan arakatu dugu: Herriaren ahozko tradizioan eta artxibategietan, gai zehatza ondoko hau dugula: XIX mendeko gaizkileen zertzeladak eta bereziki Patakon ezizeneko gizonaren perfil soziala eta indibiduala, herriaren gogoan eta garaiko auzitegi zein administratibo dokumentoetan. Hemen eskainiko duguna, lehen erakarpena baino ez da izango, aurrerantzean eta urte batzuren buruan arazo hau zabalago eta sakonago azaltzeko asmoa dugularik.

Gaizkile edo bandoleroen fenomenoaren azterketa, kriminologoak eta soziologoak erabat bereganaturik izan dute, gizarte zientzietan ikerlari diren ikuspegiak (antropologo historialari...) ahaztuz. Ikuspegi antropologikoaren garrantziaz J. Caro Barojak oraintsu eskaini digu azterketa jakingarri bat (1). Bestalde

---

Lan hau burutzeraz lagundu didatenei nire eskerrik beroenak adierazi nahi diet eta bereziki Julio Etxebarriari eta Karlos Segurari eta herrietan berriemaile izan ditudanei: Migel Bengoa Azaola, Juan Zarandona, Tomas Undabarrena, Satur Elorriaga, Miren Uriarte. Larrabetzuarrak 65-80 urte artekoak. J. L. Madariaga. Zornotzakoari ere beste horrenbeste. Berba zehatz eta tekniko batzu, Larramendiren hiztegitik hartu ditugu.

(1) CARO BAROJA, Julio: *Los fundamentos del pensamiento antropológico moderno*, Madrid 1985, 146-173 orr.

E. J. Hobsbawn, historialari ingelesak ere ikuspuntu berriak ireki ditu (2). Bibliografia zabala da baina lan hauetan oinarriturik ekingo diogu gure azterketari. Gaizkile arrunta eta bandolero soziala bereizten ditu E. J. Hobsbawnek. Bandolerismoa aintzin kutsuko protesta sozial antolatua adierazgarria litzateke? Ba ote dago bereizterik? Goazen oraingoz eta lehendabizi Patakoneri buruz herri mailan dauden usteak azaltzera eta artxibategietan aurkitu ditugunak.

## 1. PATAKONERI BURUZKO IPUIN ISTORIO ETA ESAMESAK

Informatzaile guztiak, elkarrizketan hasi baino lehen zera azpimarratu didate: Patakoni ez dutela ezagutu, gurasoengandik entzun eta ikasitakoa baino ez dakitela.

Baten batek izatez Galdakaoarra zela esan badigu eta bizi Larrabetzun, gehien ustez Larrabetzuarra zen. Ogibidez errementaria laborari gisa ere lan egin bazuen. Bizi, Axilietan (“angoa zan”) eta Zubiaurren edo eta kaleko etxean, Elizoztean. Hala ere, “Zarandoa” auzoan Morgako bidean mendirantz txabola moduko bat eukan, ezkutatuturik egoteko eta osturiko gauzak gordetzeko.

*“Lapurre baia lapurr onrradue. Lapurretan eiten euen pobreak emoteko. Dekonari kendu eta estekonari emon.”*

Hauxe dugu Patakonen perfilik ezagunena. Lapurra, bandidoa zela, mundu guztiak jakin daki, baina bere hartan erabat berezia, txiro, alargun eta maizterren alde ahalegintzen zelako. Berarentzat egiten zuen, baina lapurretan lortzen zuen gehiena behartsuen artean zabaltzen zuen. Horregatik, lapurra izan arren, lapur ona zen. Pasadizo asko bildu dugu esandakoaren froga bezala:

*“Axilietan bisi sen, angoa san. Bierrlekue: Lapurretan, deukenari kendu, estekonari emon. Orregaitik kastigu andirik be es eutzien iminten, se eitten bales miserikordie andie... Esateben gure sarrak, Sorrotzara yoan bear errentea pagetan. Iru lau, Olano, Arrginsonis, Beltrron, siren etze geien jabe. Artes bidea Sorrontzara, ta onek, Patakonek bidean urten eta:*

—Nora soasie

—Errentea pagetan

---

(2) HOBBSAWM, E. J.: *Rebeldes primitivos. Estudios sobre las formas arcaicas de los movimientos sociales en los siglos XIX y XX*. Barcelona 1974. HOBBSAWM; E. J.: *Bandidos*. Barcelona 1976. HOBBSAWM; E. J.: “Bandolerismo social in LANDSBERGER”, *Rebelión campesina y cambio social*. Barcelona 1978. Gai honetaz interesgarriak eta aipagarriak: ARDIT, M.: “Bandolerisme i delinqüencia a les acaballes de l’Antic Règim (Pais Valencia 1759-1843) *Recerques*, 3, 1974 137-155 orr. CHEVALIER, Louis: *Clases laborieuses et classes dangereuses à Paris pendant la première moitié du XIX siècle*. París 1978. LOPEZ MORAN Beatriz: *El bandolerismo gallego*. 1820-1824. Vigo 1984. BERNALDO de QUIROS: *La Picota. Figuras delinquentes*. Madrid 1975. TORRÁS, J.: *Liberalismo y rebeldía campesina: 1820-1823*. Barcelona 1976.

—*Esaitzezue errentea gura badeu, datorrela es yoan berrtara. Bat bota uen usabagana, esaten, gana txarres an dausela errendatoreak errentakas baie etorteko moduen estausela batzuk, ta usaba etorri daie-la bertora.*

*Pageu eutzien ta aurreratxuen besteak (Patakonek) kendu. An bota euen diru barik eta atzera dirue besteengana. Olango geusek asko eitten sittusen.*

*Alarrgun bet ixen san, errentea pageu esiñik*

—*Su nora soaz*

—*Gabon sarre egune da taa, errentea pageu bear, ornidu esiñik nabil*

—*Egon seite trankil, dirue neuk emongotzut. Emontzon dirue.*

*Gero usaba bueltan etorri, sozt batzuk ipini eta txapelak, ta diño:*

—*Suek geldi or, neuk esan arte, usaba ikeratute.*

—*Benga, goisean emontzuen errentea neuk bidot.*

*Ta alargunari eroan ostabe.*

*Lapurre san baie, errukitzue. Usabari kendu ta alarrguneri emon.*

*Bidian urten errentea pagetan doasela. Nora soasie ba?*

—*Sorrontzara*

—*Estekosue bildurrik iñonik*

—*Bildurre Patakonena etorten bayaku*

—*Inois entzue eser ba*

—*Es*

—*Patakonek ser eitten deu ba*

—*Dekonari kendu ta estekonari emon*

—*Nor dosue usaba*

—*Fulano*

—*Es eser etzera entregeu. Yoan daiela bera edo bere orrdeskoa gero kentzeko.*

Anekdotak hauek gizarte egoera baten islada garbia dugu, lortu ezinako nahiaren guraria betetzen da istorioan. Aipaturiko lehen lurjabadunak, ohizko gizarteko jauntxotarikoa ditugu. Informatzaileak dioskunez 1920.ko hamarkadan horien etxe asko saldu ziren, bakoitza 15-20 etxeren jabe bait zen. Beraz zapalduen aldeko ekintzetan saiatzen zen eta alarguna ohizko gizartean, bada-kigu urrikalgarria zela (Larrabetzun 1830.an hiru lau eskaleak, andra alargunak ziren) bere zorigaiztoko egoeran ozta ozta bizitzeko ahalegin handiak behar zituelako egin, inoren laguntzarik gabe eta abar. Patakon andra alargunen aldekoa agiri zaigu.

Baina esan behar da "bere bisitza pribaduen be apur bet nasaitxue ixan sala, beste andrra batzuekin ibiltzen sala, orrduko denporetan geur baiño inportan-

*tzi geiao emoten yakon*”. Ikuspegi hau ez da aurreko besteak bezain zabaldua, baina informatzaile batek emana dit.

Ipuin hauek jende askoren begirune ona erakusten dute eta nolabait gizarte haretan lapurretan egitea ea ea premiazkoa balitz bezala erakusten digute. Baina lapurretan egitea ona ala txarra zenentz, hara nola erantzun zidan larogei urteko gizonak:

*“Bai lapurre san! bai lapurre basan, beti egon bideu lapurrek, deukenari kentzeako se asko dekonak inori esteutzo emoten, lapurre gogorra ixen bier derrigor se olango geusek espalire au mundue lagun ixengo san beti, besteak esebes, lapurre (izan arren) deukenari apurr bet kendu eta besteari emon ori beti ixen bear deu gero be ixengo da ta oin bebai.”*

Lapur onaren defentsa irmoa dakusagu, injustiziaren aurkako ekintzaren justifikapen garbia. Patakonen txarrik inork gutxik ez zuela esaten eta berez “fondo oneko gisona san”.

*“Berak ill es maltrateu, iñon sekule es, es golperik iñori emon, beti arregletan zan bere arrtimañakas, kentzeako dirue. Baiña egundo entzun es deutzat iñori bes iñorr maltratau deunik. Perrsegidue? Klaro, andieri ikutu eskero beti de perrsegidue. Abadeari ikutu te orduntxe fastiadieu san.”*

Ildo beretik hara zer diost beste batek:

*“Sarrak esaten euen Patakonek egundo kontrariorik es euela eukiten, kontrarioa bai kapitalistea, lenau bankorik esales egon, amarr peseta be gorrdeta egoten siran lapiko sarr baten, diru gitxi baia gitxi asko sen orduen... apurr ori koiutan alentxe ibiltan san.”*

Baina dirua ez ezik, abereak lapurtzen ere saiatzen zen, gero feriara, Basurtokora adibidez, joan eta bertan saldu:

*“Len ferijje eitten san Basurton, arboladijjen. Patakon ori, egon san ferijjen kaballo batzuk saltzen ta orrek kaballoak ixen soasen ostute ta goarrdi zibille ibiltten zen Patakon topetan ta lagun batek esantzon:*

*—Patakon, goardi sibilek dabixek topetan iri ta, orrek kaballoak ostute dauselako.*

*Orrduen ser ein suen, kaballoak itxi etorri sen onantza (Zornotzara) San Joanera, San Joan egune ixen suan. San Joan egunion eitten suan mesa nagusijjen ostien espatadantzia ta orrek Patakonek ein eban espatadantzia ta gure aman amamak ein eban jantzan Patakonegaz.*

*Ta gero juisijjoa urten yuan ta gure aman amamak yoan soan jusijjiora esaten selan berak jantzan ein jjuala ain tokitan. Ta goardi sibilak esa ban: Orrdu beran esin leikela oiñez yoan batetik bestera.”*

Askio ibiltzen zelako, deitzen zien Patakon. Pasadizo honetan, Patakonen ausardi eta zuhurtasuna koartadak bilatzeko nabari zaigu eta bestalde herriko jende arrunta bere alde zuela azpimarratzen da ere bai.

Feria egunetan, salerosketa asko egiten zen esta giro horretan kokatzen zaizkigu ondoko gertakuzinak:

*"Gero eitten eiban beste geuse bat: Kendu dirue. Ferijetan norrk saltzen euen beijjek eta ikusi ta gero geubian etzerantza datorrenian dirue kendu.*

*Bein gixon bateri:*

*—Suk estosu erosten ala*

*—Es. Falta eitten dost idi busterrijek baia*

*—Senbat balijjo deu*

*—Onensenbeste*

*—Suk pageu*

*Eseume, pobrie zan baserrittarra, idijek falta sittusenak baia es euen dirurik.*

*—Eskatzentzuna pageu.*

*—Badea ta, senbat eskatzen dosu...*

*—Ba neureztat idijiek.*

*—Bai Suretzat... suk non dekosu ba pagetako.*

*—Aiba.*

*Aberatza idijek saldu situseunak, ondo dauena. Bestie idijekas etzera. Geubian Patakonek atzera berak areri pagetako emon tzen dirue idijiek saldu zittuzenari bidian kendu.*

*Andra gixonak bei bategas Basurrtoko ferire saltzen... a saldute busterrie erosiko... au saldute gero... baie Patakonek urrtetan baosku...*

*Berak entzun, Patakonek neu nas Ser gurosue? Busterrie?*

*Yoan ferire, berak beie saldu, busterrie zein gurosue? auxe? arrtu dirue berak pageu, eroan etzera.*

*Dekonean olantxe eta estekonean ostu. Beti ostu, moduen dagoen jenteari, pobreaki sekule es."*

*Morrgatik goixaldean oiñez Bilbora dirue eroaten errentea pagetako.*

*—Nora sues andratxue ba.*

*—Errentea pagetan noa, dirue falta yat, Patakonek billurre dekot, Patakonek urrteten badeust.*

*—Patakonek urrteten badotzu eser es destou egingo.*

*—Senbat diru falta dosu ba.*

*—Onenbeste diru.*

*—Eutzi ta emon Patakonek, ta usaba non dekon preguntau.*

*—Usaba Begoñen.*

*Geubean lapurretan ein, erlojuek, dirue eta Begoñen ta Larrabetzure arin, Elizako erlojue atzeratu ta aspigarrizko metari su emon, kanpaiek yo ta orduan pijamarik ta es seules, jentia arin su amantetan. Su amanteu, se ordu da ba, goisetik da, bam'ro oera.*

*Urrengo egunean Patakonek atzetik, foralak. Baia lapurreta se orrdutan izan da ba, ain orrdutan.*

—*Ba ni emen su amantetan egon nintzen, ta egia sen, testiguak pillot bat.*”

Gauetz eta goizez kanpotik zen bitartean, bere emazteak mailu hotsa ingudean ateratzen zuen etxean zeuden moduan.

Lapurretak Larrabetzuko inguruko herrietan ez ezik (ospetsua zen Arizko, Basaurin, berezia) Arratian eta Gipuzkoan ere egiten zituen. Horretarako zaldiganean ibili eta zaldiaren ferrak edo erradurak atzekoz aurrera jarririk zituen, horrela Morgarantz edo Arrantiarantz edo etxe baterantz joaten bazen, zaldia-  
ren urratsek kontrako norabidean zihoala adierazten zuten. Egiteko hau, Patakone-  
n izakera zuhurraren adierazpen gisa, mundu guztiak ezagutzen du, gazteak ere bai. Patakone-  
n zaldiaren urratsak, Dimako haitzetan ere lekuko ditugu (3).

Herri mailan bere legea, beldurpean edo, ezarria zuen: Mendian Legineta-  
rrek, zeozer manejatzen zutenak ziren eta artean joan egiten zen, dirua eta gainontzekoak eskatzen, baina gero joan ere ez zen egiten eta gabon inguruan esan zien: *“Neu yoaten banas txarrau isengo data ia akorrdeu bajetako”*. *“Jakín bai jentek nor san baie bakeagaitik seoser dekonak ekarri egin bear etxoan.”*

Bizkai mailan entzute handikoa bihurtu zen, bere garaian, Bizkai mailan eta gelditzen zen benta eta ostatueta Patakone-  
n makurkeriez mintzatzen hasten zen Patakonek hau eta bestea egin zuela eta abar gero bukaeran esateko *“Patakon neu nas”* Antonio Truebak 1867.an Euskalduna egunkarian Patakone-  
ri buruz idatzi zuen artikuluan zenbait pasadizo kontatzen du eta hauxe, bere buruaren arrotasunaz eta nortasunaz diharduarena, agiri zaigu (4). Gartzelan egotaldi bat ere egin zuela esaten da, eta batez ere *“kleroak sarritzen ban preso”*. Preso dagoela errementari legez zegoen: *“Baten eskapeu ban presidiotik be, enbra bat astoan paseu gindillekas estok, ta txorta bat gindille erosi ta sutegian errementari les biar eitten, botaten deu sutegira, inork aguantau esin ta berak eskapeu andik”*.

Baina Patakone-  
ri ere bere azkena iritsi zitzaion eta aipaera desberdin bi bildu ditut: Zornotzan jaso: Zugastietan balkoi batera igoten dagola, parratik lehiora sartzeko asmoarekin, koinatuak tiratu egin zion eskopetarekin. Ohostu-  
tzen edo andrearekin egoten joaten zenez gero, koinatuak bazekien lehiotik sartzeko zela. Ondoren gorpua hartu eta Bizkargira eraman zuen eta Bizkargin agertu zen hilik. Baina inork ez zuen haren ardurarik hartu nahi, batean Morgan, bestean Gorozikan, bestean Larrabetzun agertzen zen. Gorpua-  
ren jasoteak eta abar gastuak baino ez zituen erakartzen herriko udalarentzat. Azpimarratu nahi dugu ezagun edo famili arteko baten traizioz hilik gertatu

(3) ERKOREKA, A.: “Huellas del caballo de Patakon en el macizo de Aramotz” in *Etniker*, 3, Bilbao 1978.

(4) TRUEBA, A.: “Apuntes históricos anecdóticos de las provincias vascongadas. Patacon” in *Euskalduna. Diario político vascongado*. Núm. 1757, 1867.eko irailak 13. Txomin Kastillori esker mita, artikulua honen berri berak eman bait zidan. Duela hiru tute beste artikulua bat publikatu zen prentsan: SALAZAR, J. A.: Patacon, el bandido generoso. in *Hoja del Lunes*, 1983-1-24.

zela. Larrabetzun berriz honen berririk ez dute eta Patakonen amaiera ezagutzeko ondoko bau kontatzen dute:

*"Plasan etxe andian bisi sala abade bat, areri ostu te oiari amarreute itxi, bera abadea. Abadea bastante dirue dekona, urrea dekona ta abadea koiutako, txarto ibilten zan (aipaturiko etxea handia da eta lehioak goian ditu). Berrosoan arrbolak dandiek beres asikoak andiek euki sittusen, eskillara bat ein ta goiko bentanatik sarrtu. Sarrtu barrure, dirurik es, dirue topa esin, alako batean gauean erlojue, anditzarra, tan tan... yoten deu (eskuz) eta an ogerrlekuek, urrie, jausi. Ta orrduntxe arrapau ben".*

Hartu eta joan ornen zen batzuen ustez.

*"Urrengoko egunean jentea entera sanean ser pasa den, abadeari lapurretan ein dotziela ta ganera oiari amarreute itxi deudela, danak etzera bera ikusten ta euren arrotean au Patakon bera bebai eta:*

*—One berrorreri ein dotziela itzela, lapurretan ein ta gañera oiari amarraute itxi, esaten tzola Patakonek.*

*—Ba zeure antz antzeko gixon batek ein dostek.*

*—Untxe galdue nas, igerri dostia neu nasena eta untxe galdue nas.*

Beste aipaera bat:

*"Seure antza antzeko gixon txikitxu bat ixan da.*

*Aiko esan euen seguru Patakonek, eseutu neurie untxe."*

Beste berriemaile batek zehazten dit, abadeak lapurreta osoa ikusi zuela, lo dagoelakoan, begi bat itzarririk bait zuen. Ondoren arrapatu zuten eta preso sartu. Gehiagorik ez zen jakin Patakonen berririk.

Hona beste bertsio bat:

*"Etzean egon san ta yoan siren goarrdiek, etzean dauela serkeu eintzien, abadean bateri, urrea edo ostutzola... lastatien txusoa egin (figure antzeko bat txoriek ikeratzeko gizon moduko bat) egon siren mikeleteak buelta gustien, eta euki euen orrdena, tiroa boteta ilde ikusten esbadeue gixona, es puestoa galtzeko, eta ser ein Patakonek, lastatitik txusoa jeurti tiroa eta danak ara ta bera bestetik eskapeu."*

Baina gero, "beixietan iturriondoan koiu ebiela" eta arrezkero amaitu zen.

Abadearen aipaturiko lapurreta hau, Patakonen ondoren zegoen beste lapur batek egin zuen, Pedrobizer ezizenezkoa, berriemaile baten ustez, ondoren eta handik lasterrera presondegian bertan hil zelarik.

Dimako artzaiak berriz, Larrabetzuko bidegurutze batetan, lau zaldik lauderdu zutela lau zatitan adierazten du (5). Heriotz zigor modu hau bizkaitar ez

---

(5) ERKOREKA, A.: *op. cit.* 124 orr.

zen, eta kaperatasunik gabeko gaizkile bati aplikatu zioten Bizkaian mende hasieran.

Laburbilduz, amaiera iluna agertzen zaigu. Dena dela, Patakonen oroitzapena, nahiko bizkor mantentzen da eta Patakon lapurra, lapur onaren berezitasunez erantsia dugu. Bizkaian bazeuden egon beste lapur asko, ospetsuak batzuetan baina hauxe da gehien gogoratzen dena gaur egunean, eta 1860.eko hamarkadan A. Truebaren artikulu bat merezi izan zuen. Zerbait izango zuen. Esaerak ere badaude: *“A ta ori ta bestea Patakonen peskea”* adierazteko, guztia dela ona eta baliagarria (Jon Etxebarrik Diman jaso).

Goazen orain dokumentazio idatzian oinarriturik, Patakonen nortasuna eta bidenabar garaia ezagutzera.


## 2. GENEALOGIA

Juan Antonio Madariaga Ustara, Patakon ezizekoa, Galdakaon jaiotako eta Larrabetzun bizi izan zen. Julio Etxebarriak, elizako liburuetan oinarriturik, burutu duen genealogia ondoko hauxe dugu (6):

---

(6) Julio Etxebarriak, Galdakao eta Larrabetzuko eliz liburuetan oinarritu da. Derioko Eliz barrutiko artxiboan.





### 3. FAMILI GIROA

Manuel Antonio Madariagaren aita, Manuel Madariaga errementaria genuen eta ezkondu Galdakaon ezkondu zen 1795.eko ekainaren 17an. Dominika Ustarararekin, gogora dezagun Konbentzioko gerraren garaia zela eta Bizkaia-ko agintariek herrietan gerrarako balio zuten gizonen, 18-60 urte artekoak, zerrendak burutzea agindu zutela. Zerrenda hauetan, Manuel Madariaga, Patakon goitizenez ezaguna jadanik, agiri zaigu, baina 1795.eko apirilean herrian ez zegoela eta, ordez, aita eraman nahi zuten, nahiz eta gero deus egin ez (7). Badirudi Manuel bera, Galdakaon aurkitzen zela eta gerra baino amodioa maiteago zuela. Bestalde aurreko urtean, 1794.eko otsailean, Franzizka Arte-txek adierazten zuen, Manuel Madariagak haurdun utzi zuela (8). Galdakaotik Larrabetzura etorri ziren bizitzen eta 1799.an Manuel Madariagak soroa (15 peonada) alogeran hartu zuen 9 urterako, 150-165 erreal urteko errenta zuela.

Juan Antonio Madariaga, Patakon ospetsuaren osaba, aldiz, 1799.an gar-tzelan aurkitzen zen, apaizaren etxean lapurretara bat burutu zuelako edo. Errementaria zen eta 42 zuela Patakon ezizenez ezaguna, mikelete izateko aurkeztu zen, 1809.eko martxoaren 31an, 5 erreal zuela eguneko soldata (9). Amaiera txarra ezagutu zuen: Goikoelexeako eliza ondoan Joseph Zarandona Iruretagoienak tiro bat eman zion buruan, beste batzuekin batera “zuri” tiroak egiten zeudela. Preso hartu zuten baina Juan Antonioren alargunak Franziska Iruretagoiena, Manuel Madariaga anaiak eta amak barkatu egin zioten, zerga bat garian eta artoan alargunari ordaindu ordez (10). Arazoa nahiko iluna dirudi. Ez dugu ahaztu behar, beharbada, mikelete lanetan aritzen zela, lapurra izan ondoren. Dena dela, Manuel Antonio Madariagak osaba bat lapurra izan zuen eta 18 urte zuela gertatu zen aipatu dugun heriotza.

### 4. HERRIKO GIROA LARRABETZUN

Biztanleriaren bilakaeraz zera azal dezakegu, XVI mendean eta XVIII mende hasieran biztanle kopurua berdin antzekoa zen, 476 biztanle eta 481 1704.eko urtean. Geroztik 1704tik 1787.arte eten gabeko hazkundea nabari zen, urte hauetan 927 zirelarik. Hau da 92,7 % gorakada nabarmendu zen. Baina 1797.an 763 biztanlera jaitsi zen, 1810.an 907 (11). 1826.an poliziaren zentsoaren arabera 917 dira eta 1857.an lehen estadistika modernoan 1170 (12).

(7) Larrabertzuko udal artxiboa: Sailkatu gabe.

(8) Zornotzako udala. Joseph Urrengoetxea. 1794.eko otsailak 28.

(9) Bizkaiko Jaureriko Artxibo Nagusia. Gernika: Seguridad pública, miqueletes, 215 err.

(10) Bizkaiko artxibo historikoa. Bilbo: J. A. Jauregi 5636 1814.eko apirila.

(11) VILLATE, M. A.: *Demografía Sociedad y economía de la villa de Larrabezua: 1602-1850*. Deustuko Unibertsitatea. Litzentziaturako tesia. Argitara gabea 1975.

(12) B. J. A. N. Gernika, Estadísticas de población 17 err. Censo de población 1857.

XVIII mende bukaeran hazkunde demografikoaren gorakada eta ohizko egitura produktiboaren kinka larria somatzen ari zen: Laborantzatik kanpoko lanpostuen desagerketa bizi zen; adibidez, XIX mende hasieran 3 burdinolatik, batek baino ez zuen irauntzen lanean, eta 8 errotak. XIX mendean laborantzak erabiltzen zuen populazio aktibo gehiena. Horrela, 1826.eko poliziaren zentsuan oinarriturik, 669 biztanle (73 %) ogibidedunak ziren eta 248 (27 %) ez aktiboak, hau da haurrak edo gaztetxoak. Behin 11 urte ogibidedunak bihurtzen ziren. Hauen artetik, 87,7 % "labrador-labrodora", 587 biztanle, hau da laborantzan, jendea gainezka, eta 12,2 %, 82 biztanle, gainontzeko ofizioetan: Baina hauen artetik, 29 % "domesticos" hots, zerbitzariak eta 21 % josleak, 6 estudiante, bost errementari Madariaga aita semea (Manuel Antonio eta emaztea ez dira agertzen zentsu honetan, lehenengoa gartzelan bait zegoen) Ustara eta beste bi ehuleak bost, mediku bi, maisu bat, hiru argin eta beste hiru kideko, tabernari bi, otargin bi, hiru burdinolako langile, eskribaua, lau apaiz, 2 maiorazgo edo errentista. Dena dela, kontutan izan behar da pertsona bera, urtean zehar lan desberdinetan aritzen zela. Laborari egitura sozio profesionala dugu nagusia eta laborari gizartearen gailurra hartua zegoen. Inoiz historian zehar laborari egiturak ez ziren izan hain sakon eta hedatuak.

Hiriko kalean, 261 bizi ziren (28,4 %) eta gainontzekoak auzoetan. Patako-netarrak kalean bizi ziren.

Lurren jabetzari dagokionez, aipatu dugun Larrabetzuri buruzko ikerketan oinarritu ezker, XVIII mende bukaeran lur jabetzaren banakuntza berdintsuangoa zen mende hasieran baino, 1796.an 133 lur jabedunak, eta 39 maizterrak, baina 1814.an 96 dira jabedunak. Aurreko datua beraz ez da hain garbia (13). Bizkaiako beste herri batzuetan kontrako orientabidea eman zen. Baina hala ere 1814.eko lur balioen estadistikan 96 badira etxeko jaunak, 28.tik produkzio osoaren 74 % hartzen zuen. Beraz, etxekojaun jabedun desberdinak zeuden eta laburbilduz, diferentzia sozialak laborari gizartean sakon sakonak eta nabarmenak genituen. Soro eta etxeen alogerak, gero eta laburragoak ziren, jauntxoak produktibitate emankorrak lor ditzaten.

## 5. ABAGUNE POLITIKOA

XVIII mende bukaera ezkerotik 1840.arte, iraultza liberal burgesaren garaipenerako azken burrukaldiak gertatu ziren eta herri herrixka guztietan, gihartu zen aldakuntza, igarobidea. Baina herri bakoitzak bere mikrokosmos partikularra osotzen zuen.

Bost gerragirotu bizi eta jasan izan ziren: Ingalaterraren aurkakoa, konbentzioaren gerra, Napoleonen aurkakoa, 1822-1823 errealista zeritzona eta 1833-1839, karlista.

---

(13) VILLATE, M. A.: *op. cit.* 73 orr.

Klase sozial batzuek, etxekojaun eta kidekoak, nekez ulertzen zuten gaineratzen zitzaizkien aldakuntzak, fenomeno berri eta abar, talde bezala mehatxaturik sentituko zutelarik beraien nortasuna, izatea, sortu zuten gizarte mota XVI mendean geroztik. J. A. Zamakola baserriarren gizarte berriaren proiektuan sentikari horren lekuko agertzen da (14). Seguru asko eguneroko bizimaila eta erosotasuna ere jaitsi egin zen. Eta horrela lehenagoko garaiak erakargarriagoak gertatzen dira etorkizunekoak baino eta urrezko garai galduaren zuzentasuna, berdintasuna, gura nahian, dagoenekoa kontserbatzea, aintzina-koaren iraunarazteko, lehen urratsa besterik ez zen; jokabide hau iraganaren izenean, lege nagusitzat eta oinarritzko balore handi bezala indartzen, gihartzen joango da. Etorkizun berriko irabazleak nortzuk ziren ikusi ondoren, diskurtso kontserbadorea, sendotzen da, areago oraindik 1823tik 1833ra antolatu zen erakundetze militar autoritarioaren medioz.

Herriko antolakundeaz, azpimarratu behar da. XIX mendean, 1829an zehazki, kontzeju zabaleko ohiturak irauten zuela: Kontzeju zabal honek, alkatea, erregidore bi eta “sindicador procurador general” delakoa urtero hautatzen zuen. Alkatea zeregin judizialetaz ere arduratzen zen (15). Garai hauetan, kargu hauek, etxekojaun jabe dunek eskuratzen zituzten.

Zertzelada hauek, Manuel Antonio Madariagaren garaia margotzen digute eta ondoren gure pertsonaiaren izaera eta ekintzabidea aztertuko dugu.

## 6. MANUEL ANTONIO MADARIAGA, PATAKON. BIZITZA

Aipatu dugun legez, 1796.an Galdakaon jaio zen baina Larrabetzun bizi. Eskolatu gauen, hau da irakurtzen eta idazten zekien, ondo idazten sinadura elegantearen arabera, eskribau edo antzekoen parekoa eta sarritan erabiltzen zuela dirudi, beti sinadura polita, argia, berdintsua, segurua agiri bait da. Kontutan badugu osaba bat abadea zuela, beharbada harekin ikasiko zuen eta eskribau lanetan ere noizbait ziharduen. Dena dela, ogibidea galdetzen diotenean, erremendaria dela baieztatzen du, aita eta osaba lapurraren antzera, matxinoen azkazikoa dugu alegia.

1815an, jadanik 19 urte zuela, Luzia Iruretagoienak auzitara eraman zuen “actos carnales” delakoak direla eta (16) 1819.eko apirillean ezkondu zen Agustina Merikabeitiarekin, hiriko medikuaren alaba agian eta maiatzean badirudi

(14) ZAMAKOLA, J. A.: *Historia de las naciones bascas de una y otra parte del Pirineo septentrional y costas del mar cantabrico desde los primeros pobladores hasta nuestros días con la descripción caracter fueros usos y costumbres y leyes de cada uno de los estados bascos que hoy existen*. Auch (Imp. Viuda de Oupret) 1818. T. II, 288-289 orr.

(15) Bizkaiko Diputazioko Artxiboa: Villarias 186.

(16) Ez dugu izkribua aurkitu, izenburuaren aipamena baizik zerrenda batetan. F. Bergararen eskukoa seguru asko. 1824-1861.

lehendabiziko alaba izan zuela. 1819.eko urriaren 13.an Larrabetzuko arrabale-tan, etxe bat alokatu zuen, 9 urterako, 37 dukat (407 erreal) ordaindu behar zuelarik urteko. Konpontzeko premian aurkitzen zen eta etxeko lurrak landu behar zituen (17). Handik lasterrera, lapurtzat arrapatua eta gartzeleratua, 1823.eko urtean hain zuzen ere, lapurketak Zornotzan bide zituelako burutu. Baina 1824.an erregearen parkamena edo indultoia lortu zuen. Eta 1825an, bederatzik hilabete gero, Kexanan lapurretan egiten du baina urrengo egunean etxetik alde egin arren, inguruan arrapatu egin zuten. Bilboko gartzelan igarotzen ditu hiru urte urtean eta 1828.an ihes egitea lortzen du ez dakigu zehazki noiz ez nola. 1829.eko urtarrilean bere itxuraren deskribapena zabaltzen du Bizkaiako poliziaren bulegoak, Bizkaiako Diputazioaren babespean aritzen zena alegia: Ez handi ez txikia, baina gorputz sendokoa, panazko jantzia, txalekoa gorrixka, zilarrezko edo antzeko botoiez, narrazko botak eta manta bat lepo gaintik (18). Harrezkero ez dugu berri zehatzik. Lapurreta franko aipatzen da urte hauetan, asko berari leporatual. Larrabetzun ez da bizi, legalki behintzat, zeren 1830, 1831, 1832.eko Cartas de Seguridad edo eta nortasun agiriaren jabedunen artean ez da agiri. Bai aldiz, 1832.eko zerrendan, berarekin batera 6 urterako kondenatua izan zen Juan Manuel anaia, gartzela urteak bete ondoren agian.

Larraur in andralaguna zeukan, preso zegoen Perumaloren emaztea eta esaten zenentz lapurretak ere elkarrekin burutzen zituzten, Patakonen berrie-maile zuhurra zelarik. Andra honek herriko beste gizon batzuen bisita hartzen zuen, eta eskandaluaren iturburu zelaren aitzakiaz, haurdun zegoelarik, herriko agintariek eta abadeak Plentzira herbesteratu zuten (19).

Antonio Truebak zionez, 1830.an 10 urteko gartzelara kondenatua izan zen, hau da berriz arrapatuko zuten eta Valladolideko presondegira eraman ondoren, Velez de la Gomerara bidaldua izan zen baina gerra garaian berriz ere indultoia lortu bide zuen, beharbada bukaeran, 1839.an. Dena dela 1840.eko maiatzaren 9.an seme berri baten bateoa ospatzen du eta 1842.an lehendabiziko iloba jaiotzen zaio, urrengo urtean ezkondu zirelarik Juan Antonio Madariaga semea eta Gregoria Ignazia Goienetxea. 1843.an azken alaba jaiotzen da, paperen arabera behintzat eta urte horretan herriko mediku biren arteko liskarra zela eta, herriko batzar nagusia ospatzearen alde eskakizun bat sinatzen zuen beste herrikide batzuen artean. Hauxe dugu oraingoz bere azken izkribu zuzena (20). Geroztikorik, Antonio Truebak idatzi zuena baino ez dugu ezagutzen: 1847 edo 1848.an arrapatu ornen zuten eta Cartagenako gartzelara bidaldu. Ondoren Ceutakora eta gero Melillara. Presondegitik ihes egitea lortu bide zuen, baina mairu batek arrapatu zuen eta esklabu bezala saldu. Ez zuenez askatasuna erosteko dirurik, dirudienez Melillan zegoen militar euskal-dun bati eskatu zion dirua askatasuna lortzeko baina ukatu egin zion, artalde

(17) B. A. H. Juan Bautista Jauregi. 5613, 1819-X-13

(18) B. J. A. N. Gernika: Seguridad publica 290 err.

(19) B. J. A. N. Gernika: Seguridad publica 298 err.

(20) B. J. A. N. Gernika: Seguridad publica 293 err.

baten artzaitzat lanean jarri zuten, ardiak zaintzen alegia, eta Afrikan hil zelaren ustea zuen A. Truebak.

## 7. PATAKONEN EKINTZAK

Kexanan burutu zuen lapurketa da oraingoz sakonen ezagutzen duguna, auziagiri edo espediente mardula sortarazi bait zuen. Gero, Unbe-Bizkargi mendi inguruetan 1828-1830.an gertatu zirenak, seguru asko Patakonen gidaritzapean eginak izango bide ziren.

Baina lehendabiziko salaketak, 1822.ko irailetik 1823.ko maiatararte Etxano-Amorebieta inguruko lapurketen leporatzea izan zen. 1823.eko ekainaren 3.an ondoko hauek, auzia jasan behar izan zuten. Jose eta Juan Zugaza, Franzizko Arrillaga, Manuel Antonio eta Juan Manuel Madariaga. 1824.eko otsailean, 8 urteko kondena hartu zuen, salaketa honetan finkatuz: “Exigiendo a fuerza de armas dinero y otros efectos, maltratando y llevándose las gentes al monte y cometiendo en ellos otras extorsiones”.

Baina Manuel Antonioren emazteak indultoa eskatu zion erregeari, erreallisten alde bururatu zuela eta abar adieraziz. Arazoa da, 1824.eko urrian anaia biak libre atera zirela, bere kuadrilako lagunak barruan geldituz.

Berehala beste lapurketa bat egin zuen 1825.eko uztailaren 5an, Araban, Kexanako herrian. Lapurreta hau dela eta, epaiketa luze batek txosten aberatsak sortu zituen, gaizkile hauen ingurunea eta ekintza ezagutzeko behintzat (21).

San Juan egunean, Kexanan oraintsuarte feria ospetsu bat antolatzen zen. Bertan egon ziren Manuel Antonio eta anaia haizkorak eta haitzurak saltzen edo. Handik hamar egunera, Lukas Gorbearen ostatura hurbildu ziren bost lagun Manuel Antonio, anaia, E. Ustara lehengusua, 16 urtekoa, Artetxe eta Estartetxe, Larrabetzun bizi ziren gazte bi, alogeran eta zeregin deberdinetan aritzen zirenetariko morroi batzuk. Ondo afaldu ondoren, zenbat jende bildu zen ferian eta ea guardirik ote dagoen herrian galdetu zuen, kontrabandistak zirela eta. Ezezkoa jaso eta gero trabukoak atera, geldi, oihukatu zuen Patakonek; zerbitzariari: ea dirua non dagoen, 20.000 erreal nahi dituztela eta. Kutxak arakatu, diru pixka bat aurkitu, 300 erreal inguru, jantziak, oinetakoak, paineloak, oihalak. Guztia hartu, etxeakoak sokaz lotu eta alde egiten dute. Baina jabearen semea askatzea lortu zuen eta berehala lapurketaren berria zabaldu. Hamar egun lehenago egon zireneko ostatuko andrak, arratsalde berean kasualitatez edo ezagutu egin zituen, eta Larrabetzuko errementariak zirela jakin arazi. Berehala tokiko erakunde armatukoak, lapurren jarraian hasi ziren.

Bitartean Luiandoko bidasaria ordaindu behar zen kataiaren parean, Patakonen kuadrilak, Bilbotik zetozen mandazain birekin topo egin zuen. Itxaron

---

(21) Bizkaiko korrejimendua: 2.661, 12 zenbakia.

pixka bat eta: Geldi, diruak hona, eskatu, baina batek alde egiten hasi, orduan, tiroa bota baina huts egin zuen, ondoren labana jaurti eta zauritu. Baina artean zalaparta ikaragarria subertatu zenez, gaueko ordubatak zirenean, arin arinka anka egin zuten, Patakon biak eta lehengusua zaldi ganean eta beste biak korrika.

Bitartean, Luiandon, Naturales Realistas Armados taldekoak jeiki, eskopeta, zaldia hartu eta lapurren atzetik: Batzuk Laudiorantz besteak zaldien urratsak segitzen, Larrabetzurantz abiatu ziren. Goizeko zazpirak inguruan, Patakonen etxera zuzen. Bertan arrapatzen dituzte, gorabehera batzuen artean, Manuel Antoniok hasieran etxetik alde egitea lortu bazuen ere. Herriko jendea halabeharrez eta gogoz kontra dirudi parte hartu zuela arrapatze ekintzan. Harrigarria da, Kexana-Luiandokoan erreakzio azkarra eta Patakonen konfiantza lasaia.

Beste lagun biak, A. Estratetxe eta M. Artetxe, denboragarrenean beraien burua salatu eta entregatu zuten, damaturik zeudelako eta Patakonek engainatu zituelako. Honek esan ornen zien Orozkorantz joango zirela Juan Manuelen andregai arrapatzen, ezkontza ospatzeko, baina gero beraien borondatearen aurka lapurketan murgildurik aurkitu zirela.

*Epaiketa:* Azken sententzia Korrejidoreak eta Diputadu nagusien eskutan zegoen. Korrejidoreak juez delegatua izendatu zuen; bestaide promotore fiskala eta defentsaren aldekoa zeuden, 30 egunen barruan sententzia eman behar zuten baina urte bitik gora iraun zuen.

*Zer aurkitu zioten etxean:* Karabina bi, moztuak ("recortados"), balak, kartutxoak, emakumezkoen oinetakoak hiru pare, oihala, paineloak, labana.

*Kexanako testiguak:* Lapurreta deskribatu zuten, zerbitzariari labanaz titien inguruan zauri txikiak egin zizkiola, esanetara makurtzeko. Entzuna zutela, dio batek, Arrigorriagan "casa de alcahuetería" edo estalkintza etxea zuela Manuel Antoniok.

*Patakonen aldeko testiguak:* Denak ziren gaizkileen munduan murgildurik ibiltzen zirenetarikoak: Pedro Maya, frantsesa izatez, Arrigorriagan ostatua zuen non Patakon sarritan egoten zen. Mende hasieran gartzeleratua, lapurra, zelako.

F. Artetxe, Arratiako Arteagakoa, morroia, alperra, ugasabari ohostu egin zion eta deklaratu ondoren, handik lasterrera Saldropon kuadrilan egin zituen lapurreten ondorioz arrapatua eta Bilboko gartzelan sartua. Lemoan eskandaluak probokatzen zituen, Meza Nagusiko orduan tabernan egoten zelako.

F. Linaza: Zornotzako jornalari txiro bat.

Maria Ignazia Mallabizar: Arintxu ez izeneko lapurraren emaztea eta Lemoan F. Artetxerekin elkarturik ibiltzen zen.

Orozkoko beste andra bat.

Hauek Patakonen alde testifikatu zuten, koartadak burutuz.

*Sententzia:* Patakonek, leporatzen zioten guztia, ukatu egiten zuen eta lehenago gartzelan egon bazen errakuntzaren ondorioz izan zela, deklaratu zuen.

Epaiketa prozesuan, E. Ustara gaztea, gartzelan gaixotu eta Bilboko ospitalean hil zen “gastroentero-colitis aguda”-k eraginik. Estratetxe ere hil zorian aurkitu zen baina azkenean osatu. Presoen eguneroko janaria erreala bikoia zen. Norbait gaixorik edo zauriturik aurkitzen bazen, dieta berezia zuen: Libra bat aragi, txokolatrea eta ardaa.

Azkenean M. A. Madariagak 8 urteko kondena hartu zuen, 6 bere anaiak eta bi urtetan lan publikoetan aritzea beste biak, J. A. Estratetxe eta M. Artetxek.

Politika jokabideaz, zerbait adierazten du Juan Manuel Madariagaraen erantzunak:

“Que no ha visto en su casa ninguna de fuego, pues que habiéndose retirado del servicio de S. M. en calse de realistas, le entregó al alcalde de la villa de Larrabezúa el fusil con su bayoneta y canana.”

Hau da, seguru asko, errealdisten batailoan burukatu zuen agian eta bukatu, zutenean armak eman behar ziren. Hala ere, 1823.an gartzelan bazegoen, beharbada aurreko urteetan ibiliko zen burukatzen gerrilari legez? Edo 1824.an atera zenean sartuko zen errealdisten taldetan, gero berehala uzteko?

*Iheslari:* Aipatu dugun bezala, 1828.an Manuel Antoniok presontegitik ihes egitea lortu zuen eta 1828-1830 urte inguruan, Unbe-Bizkargi-Arratian hainbat ekintza burutu zituen. Adibidez 1828.eko abenduan Zamudioko errementariaren etxean karabinak moztu egin zituen gero Fikako sakristauari Cartas de Seguridad delakoak kendu zizkion. Ondoren ematen dugu garai garaian salatu ziren ekintzen zerrenda.

1828.eko urte bukaeran, Zamudio-Lezamako pertsona batzuk gartzeleratu egin zituzten Patakonen laguntzaileak zirelako edo.

Guztiak ziren maizterrak, errotari bat eta andrazkoak tarteko direlarik. Ondasun oro enbargatu ondoren Patakoneri estalpea eta janaria ematen ziotela zen salaketa nagusia (21).

## 8. GARAIKO ARAUZTEA ETA LAPURRERIA

Antonio Trueba beste eritzi batekoa izan arren, XVIII mende bukaeran eta XIX lehen erdian, lapur eta lister asko zen Bizkaiko lurraldean behintzat eta gainontzeko euskal lurraldetan ere bai:

---

(22) Bizkaiko korrejimendua: 2.648, 8 zenbakia.



"Hay que convenir en que en cualquiera otro país (Patakoneri buruz ari da) sólo hubiera pasado por un ratero más o menos atrevido e ingenioso, pero aquí, donde felizmente los bandidos son planta poco menos que desconocida, se le elevó a la categoría de los José María y Jaime el Barbudo" (23).

Baina 68 urte lehenago 1799.an, hara zer idatzi zuen F. Aranguren Sobradok, Bizkaiko merindadetako Batzar Nagusiak onartzuz:

"Es notorio que a resulta de haber sido este Señorío y sus inmediaciones uno de los teatros principales de la última guerra con la Francia, se inundó de ladrones y malhechores" (24).

1796-1800 artean, 13 auzi ospatu ziren, 100 pertsona inguru inplikaturik zeudela, eta 6 gaizkile banda antolatutak 8 gaizkilez osaturik bakoitza (25). Garbiak dira datu zehatz hauek bandolerismoa Bizkaian ere fenomeno hedatua eta sakonki sustraitua zela onartzeko.

XIX mendearen lehen erdian, gaizkileen ekintzak eurrez aipatzen eta gastigatzen ziren. 1817tik 1820, 48 izan ziren gartzelara kondenatuak Bizkaiko arautegi kriminalaren arabera eta 1824.an eta 1825.an, maiatzararte baino ez, 56 (26) 1824.an polizi erakunde sendoa Diputazioaren babespean herri guztietara zabaldu zen eta pertsona guztien herritik kanpoko joan etorriak kontrolaturik zituzten, pasaporte edo eta Cartas de Seguridad delakoen bidez (dokumentu hau famili buruari baino ez zitzaion ematen premiazko bidaiak egin ditzan). Horrez gainera gizartea erabat militarizatu zen paisanos armados deituriko erakunde militar politikoaren medioz. Baina hala ere, lapurreria fenomeno arrunta bihurturik zegoen. 1827.eko ekainean polizi arduradunak idazten zuen: "Cuadrilla de malhechores que ha infestado parte de este Señorío" (27).

Nun gertatzen ziren lapurretarik ugariak? Errepideetan, batez ere toki menditsuetan: Gumuzioko menditan, Saldropo (Zeanuri) (28), Diman, Unbe-Bizkargi inguruetan, Ermua Zaldibar, Muniketa, Gordexola-Angulo. Denetarik ostutzen zioten, mandazain edo bidaiari arruntari: Dirua, jantziak, janariak. Apaizen eta aberatsen etxeak ere aukera aukerakoak izaten zituzten.

Abrebasleen ganadu lapurreta, Bizkargin adibidez, maiz jazo zen, Patakon bitarteko zela seguru asko.

---

(23) TRUEBA, A.: *op. cit.*

(24) *Acuerdos de Juntas Generales de merindades de este M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya celebrados en Santa María de Begoña*. Agosto 1799. Bilbao.

(25) ZAMORA, M. R.: *El bandolerismo en Vizcaya (1700-1808)*. Deustuko Unibertsitatean, Litentziaturarako tesia. Argitaragabea. 1977.

(26) B. D. A.: *Ordenes y circulares* 13.

(27) B. J. A. N.: *Gernika: Seguridad publica* 290.

(28) BARANDIARAN; J. M.: *Obras completas*. T. I. Bilbao 1972, 145-146, lapurreri buruzko ipuinak Zeanurin bilduak.

Tabernak, bentak, fondak gaizkileen bilekuak ziren, informazioa hartzeko zein taldea osotzeko.

Lapurretak ez ezik zenbait erahilketa ere badakigu gertatu zela: Ibarrurin 1828.an senarrak emaztea hil, zuen (29). Eta Iurretan koinataren erahilketa prestatu zuen, sorginkeriaz bere ama gaixotu eragin eta hiltzorian jarri zuelako. Sorginaren heriotzak, hau da bere koinatarenak, agian Osasuna berreskuratuko zion besterik gabe (30).

Baina hona hemen 1826.tik 1830.ra dokumentatu ziren arauzte edo delitoen zerrenda soila (31): 1828.tik-1830.ra. Patakonen eragina somatu zen.

1. 1826.an: Berreagan, 8-9 gizona gaizkileen kuadrilla bat.
2. 1827.an: 6 gizon, lapurretak Ariazun (Ermua).
3. 1827.eko ekaina: Lapurketak Saldropon. Lapurrak hiriko txiroak eta tarteko F. Artetxe, Patakonen alde deklaratu zuena.
4. 1828.eko ekaina: Morgako mendietan abere lapurretak.
5. 1828.eko Urrian: Muxikan, baserritar bati lapurretan kalean doala.
6. 1828.eko Urrian: Lezamako apaizari, erlojua, kapa eta 60 erreal kendu zioten.
7. 1828.eko abenduaren 16.an: Zamudioko errementariari karabinen kainoiak moztea agindu zioten. Mikeleteak lapurrak jarraitu eta Lezama-Zamudion, Patakonen laguntzaileak presondegian sartu zituzten.
8. 1828.eko abenduan: Lapurretak Artebakarran. Derioko apaiza tiro batez zauriturik uzten dute, lapurretan egin ondoren.
9. 1828.eko abenduan: Bermeo-Mungia ko errepidean bidaiariei lapurretan. Mungiako errota baten lapurketa.
10. 1828.eko abenduan: Unben Bilbotik edo Bilborantz abiatzen ziren bidaiariei gaineko guztia kendu behin baino sarriago.
11. 1828.eko abenduan: Gumuzion, Zornotza-Bilboko errepidean, lapurretan bidalariei.
12. 1828.an: Diputazioko arduradunak kezkatu, elizak sarritan salteiatzen direlako. ("profanación de vasos sagrados".)
13. 1929.eko urtarrila: Fikako sakristauari zuriz zituen Cartas de Seguridad delakoak ohostu. Patakonen itxuraren deskripzioa zabaldu zen.

---

(29) B. J. A. N. Gernika: Seguridad publica, 325.

(30) Bizkaiko Korrejimendua. 216, 4 zenb. 1815.

(31) B. J. A. N. Seguridad publica: 270, 290, 293, 298, 325, 340. Korrejimenduko artxiboa: 666, 3, 1827.ko ekaina.

14. 1829.eko urtarrila: Lapurketak Zornotza aldean.
15. 1829.eko otsaila: Igorreko anaia bik, Baionatik jantziak ekartzen zituen mandazainari gehiena lapurtu. Ordizian arrapatu egin zituzten.
16. 1829.eko ekaina: Galdakaon zilarrezko tresnen lapurketa.
17. 1830.eko Apirila: Mikelete baten heriotza.
18. 1830.eko abuztua: Gorozikan lapurketak.

1827.eko urte inguruan beste lapur ospetsu bat zebilen Bizkaian zehar: Mariano Abaliasek presondegitik ihes egin zuen eta lapurketa asko leporatzen zioten: Busturia, Errigoitia, Ibarri, Azkoitia dugu bere ingurune geografikoa, dokumentazio idatziaren arabera behintzat. 1827.eko maiatzean Busturiako errotari eta errealista izandakoaren-etxean gaixorik, aurkitzen zenaren susmoa zabaldu zen, gauetan Bulukua medikoak osatzen zuelarik. Kastor Allende Salazar.i, Bizkaiako lur jabedun handienari, kalean erlojua kendu zion eta béste horrenbeste Mundakako apaizari. Baina Ibarriko Undabeitian, lapurketa izugarri bat leporatzen zioten:

“Mil y más ducados en dinero, alajas de plata y varias cargas de ropa blanca y uso comun, procedente del verificado la noche del 23 al 24 de abril ultimo en la caseria de Undabeitia jurisdiccion de Ybarri a cuyo dueño le colocaron y dieron fuego los ladrones porque se resistió a entregarlos la cantidad que le exigían.” (32)

Horra bada garaiko giroa, urte zehatz baztuetan. Mandazainak, bidaidariak ez eta apaizak ez dirudunak ez ziren hain lasai ibiltzen. Gaizkile ugari ugaldutako bazter guztietan. Patakona lapurra, aipaturiko dokumentazio idatzian gaizkile arrunt bat baino ez da, lapurretan egiten beharturik dagoen pertsona bat agian.

## 9. ADMINISTRAZIOAREN JOKABIDEA

XVIII mendearen bigarren erdian administrazioa gero eta sarriago saiatzen da errepresio sozialaren bidez gaizkileen ekintzak gastigatzen. Bizkaiako batzar nagusiek, adibide labur gisa, erabaki zutenaren berri azalduko dugu (33):

1770.an: Tabernarien kontra. 1772.an lapurren bat arrapatzen duenari 200 errealeko saria.

1778.an: Alper eta eskaleak kontrolpean jartzeko arautegia.

---

(32) B. J. A. N. Gernika: Seguridad publica, 290. 1827-5-27.

(33) *Acuerdos de Juntas Generales: 1770.tik*. 1800. bitartekoak.

1786.an, mikeleteeri talde bolante bat sortzea erabaki zen, hau da nolabait boterearen aldeko “bandoleroak”, sarritan lehenago gaizkile izandakoak bait ziren. 1796.an berriz, lapurreriaz kezka biziak planteatzen dira. Baina eta azkenez 1799.an merindadetako batzar nagusiak arautegi penala erabaki zuen: Legearen gogortasuna nabaritzeko VII artikuluan zioena aski da: Susmoetan oinarritzea nahikoa zela eta beraz, tortura aplikatu liezaioke (34). Erresumako gobernuak, Urkijo bilbotarra ministro zelarik, artikulua arautegitik arbuia-tzea agindu zuen. Beste artikuluetan zera adierazten zen: Herriko ordezkaria, alkatea, judizio arina ospatzeko gai zela. Auziak, gehienez 30 egunen barruan erabaki behar zela. Lapurren laguntzaileak ere kondena sendoak jasan behar-ko zituzten. Lapurketa batzu heriotz zigorrez gaztigaturik izango ziren. Herri bakoitzean, lapurrak arrapatzeko 20 gizonetako konpaniak edo taldeak sortu behar ziren.

Legedi hau, 1815.an, eta 1824.an, indarrean jarri zen (35). Laburbilduz, bada, administrazioa indar gogorreko errepresioz erantzun zuen.

## 10. BANDOLERISMO SOZIALA

Galdera bat egiten hasi gara eta dokumentazio idatziaren arabera esan beharko genuke Bizkaiako bandolerismoa Galizian lekutu zenarekin antz eta berdintasun handiak baditu ere (36) Patakonen kasuan lapur onaren erueda eta esterotipoa betetzen da, ahozko tradizioak ontzat ematen baditugu. Lapur ona ohizko eredu inibertsalean, ustekabearen bihurtzen da gaizkile, arrazoi nobleak eraginez legea haustera bortxatua denean. Estalirik eta bazterturik dagoen berezko eta iraganeko justizi naturala birrindatu eta berpiztu nahi du, aberatsen kontra, berdintasun sozialaren alde. Ez du bere inguruko komunitatearekin apurtzen, murgildurik jarraitzen du, lapurretak justizia egiteko modua besterik ez direlarik. Indartsua eta azkarra da, sakonean ona, txarrik inori egin gabekoa, baina momentu batetan engainu edo traizioz adiskide edo kideko batek hiltzen du. Ikusi dugun bezala, Patakonen mitologizazioan, berezitasun oro atera zaizkigu.

Politikoki ez dakigu norantz jokatu zuen, baina aberatsen kontrako instintoak eraginik beharbada, ez litzateke batere harrigarria, ohizko tradizioaren

---

(34) VII artikulua: “Para imponer la pena ordinaria en estos delitos de robos y hurtos, y muerte hecha en despoblado, ó de noche (no siendo en riña ó propia defensa), bastarán los indicios y presunciones que son suficientes para poner al malhechor justamente á cuestión de tormento, conforme á la Ley 10, Tit. 9 del Fuero”. *Acuerdos de Juntas Generales de merindades... 1799*, 110 orr.

(35) Erresumako gobernuaren onespina hartu ondoren bi edizio behintzat ezagutu situen: *Reglamento penal acordado en Junta General de merindades de 23 de Agosto del año 1799*. Bilbao 1803. *Reglamento criminal para la sustancion y determinacion de robos hurtos muerte en despoblado o de noche en el M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya aprobado por S. M. en 18 de Diciembre de 1799*, Bilbao 1824.

(36) LOPEZ MORAN, B.: *op. cit.* 193-207 orr.

aldean jarraituko zuen, iraganean lortu zen berdintasun galduraren hila, egoera berria ohizko jauntxoek eskutik abiatzen bait zegoen.

Karlismoaren buruzagi izen ziren batzuk, gaizkile onaren ekintza eta izaeratik beharbada hurbilago zeuden, buruzagi politiko eta jakitunetik baino. Aztertzeo gaia litzateke. Karlista batzuek behintzat, gerraren bukaeran gaizkileen ekintzetan ziharduten (37). Fenomeno hauek, dena dela, aberats eta pobreen arteko desberdintasuna ongi markaturik dauden gizarteetan agiri ohi dira. Aztertu dugun garaian, ohizko gizarte a kinka larrian amildurik dakusagu. Eskaleak eta antzekoak nabarmenago igertzen ziren, Bizkaiko gizartean zenbakiz eskaleak 2,5 % baino ez baziren, hau da, gutxi, inguruko gizarteetako egoerarekin parekatuz gero (38). Egoera larria une guztietan modu batera eta bestera isladatzen da. Gizarte laboraria eta bere utopia mehatxaturik aurkitzen zen eta bandolero soziala laborari horien produktoa dugu. Euskal gizartea erdibiturik zegoen eta gerra zibilak lekuko eta isladarik garbiena.

Dena dela bandolerismoaren fenomeno ezin da soilik krisialdi sozialari leporatu. Badaude egon beste elementorik (mafia iren iraupena, munduko hesparru desberdinetara esportablea delarik, adibide bat dugu). Oinarri biologikoak? Ez dira gutxi izan honelako zerbait aditzera eman dutenek. Patakonen kasuan familiaren jatorriak eta bereziki osabak eragina izango zukeela? Beharbada bai, hala ere inguraldiaren eragina baldintzagarriagoa gertatzen delaren ustean nago, ikuspuntu historikoan krisialdi garaietan bandolerismo forma ezberdinak goraka eta emendatuz agiri bait dira.

Laburbilduz, lan honetan, bandolerismoaren arazoari hasiera bat eman nahi izan diogu, badolero sozialaren eredu bat azaldu ohizko gaizkileen munduan eta aurrerantzean ondorio zehatzagoak lortuko ditugulakoaren esperoan gaude.

## RESUMEN

En repetidas ocasiones Don Julio Caro Baroja ha manifestado que difícilmente podemos analizar la etnografía europea sin un profundo conocimiento de su vertiente histórica. Este trabajo quiere ser un homenaje a su magisterio, así como una evidente operacionalización del principio arriba enunciado.

Hemos investigado un tema de historia social no muy común en nuestra historiografía: El bandolerismo, y más en concreto el perfil social e individual de un bandolero: Manuel Antonio Madariaga alias Patakon. Nació en 1796, en Galdakano, y murió probablemente en Africa hacia 1850-1860.

---

(37) B. A. J. N. Gernika Seguridad publica 293.

(38) GRACIA, J.: "La culture de la pauvreté en Biscaye á la fin de l'ancien régime: facteur sociaux et attitudes mentales a l'égard d'un groupe marginal" in *Processus sociaux ideologies et pratiques culturelles dans la société basque*. Université de Pau et des Pays de l'Adour. 1985, 26 orr.

En la primera parte del trabajo hemos recopilado y ordenado un conjunto de historias y leyendas atribuidas a nuestro personaje. Su recuerdo se ha perpetuado en la mente popular de los habitantes de Larrabetzu, Zornoza y localidades limítrofes. Las leyendas expresan las características universales con las que se define el perfil del bandolero generoso y algunas de ellas encuentran su correlato con la realidad de acuerdo con la documentación histórica utilizada. Los expedientes e informes judiciales, administrativos y eclesiásticos nos han permitido reconstruir su entorno familiar y social, así como la precisa constatación de una serie de actos delictivos atribuibles a Patakon entre 1828 y 1830 después de su fuga de la cárcel. En concreto, hemos analizado el robo realizado en Kexana en 1825, por el que fue condenado a diez años de prisión.

La documentación escrita nos ofrece la imagen de un simple bandolero, sin otro tipo de consideraciones. Sin embargo, a juzgar por el testimonio de A. Trueba, hacia 1867 su figura era famosa en Vizcaya y en su tiempo existieron otros famosos bandoleros de los que no ha quedado memoria alguna.

Patakon encarnaba la figura del bandolero generoso de una sociedad de labradores en plena crisis social y de identidad que se manifestó y actuó en apoyo de algo que se estimaba como justo, inmutable y esencial, es decir, la reacción y vuelta a un pasado, a una sociedad igualitaria, sin ricos y pobres, de acuerdo con los proyectos de los pequeños labradores propietarios y las aspiraciones de los arrendatarios. Este proyecto se manifestó en la obra de J. A. Zamakola, publicada en 1818. En resumen, Patakon bien pudo ser el exponente de una forma de protesta primitiva que evidenciaba la confrontación social en una sociedad profundamente dividida, a la búsqueda de una reformulación de su organización social, económica, política y cultural.